

GREZIA ETA MENDEBALDEKO FILOSOFIA

1. Pentsamendu filosofikoaren sorrera. Sokrates aurreko filosofia

1.1. Pentsamendu filosofikoaren sorrera

Filosofia giza pentsamendua mitotik arrazoizko pentsamendura igarotzean sortu zen K.a. VI.mendean Jonian. Filosofiak jakinduriarekiko zaletasuna esan nahi du.

Adimenak gauzen oinarriak bilatzea eta aztertzea eskatzen du (nola, zergatik, helburua...) Hau da, gizakiak berezko (eta beharrezko) du jakitea nahia.

Arlo askotan planteatzen zaizkio (hasieran behintzat) erantzunik ez duten galdera "handiak". **Kontzientzia mitikoa** (mitoak), gizakiari problematiko zaizkion galdera horiei ematen dien erantzun multzoaz eraturik dago. Erantzunak ordea, irudimenezkoak dira funtsean.

Azalpen horiez gain, arazo praktikoez ere dihardute mitoek. Bigarren kasu honetan (**jakintza mitikoan**) ezaski gertatu zirenean, bidea ireki zioten filosofiari (arrazoizko erantzunak bilatzen dituen jarrerari).

Zergatik gertatu zen hori guztia toki eta garai hartan?

Erlijio olinpikoa krisian

Erlijio olinpikoa krisian zegoen. Olinpoko jainkoek sinesgarritasun osoa galdu zuten herriaren aurrean. Erlijioa krisian egoteak zalantzari eta arazoen birplanteamenduari ateak ireki zizkien, ondorioz, filosofia sortu zen. Natura ezagutzen saiatzen ziren, berarekin harreman egokia ezartzeko eta hark jarritako eragozpenak gainditzeko.

Egoera soziopolitiko

Antzinako Grezian monarkia hierarkikoak zuen boterea, sistema mitiko baten gainean eraikia. Sozialki ordena aristokratikoak zuen. Jonian, merkataritzan oinarritutako *polis* indartsuak sortu ziren. *Polis* horietan, gizatalde berri bat sortu zen, merkatariena: gizarte aristokrata desagerrarazi eta gizarte esklabista, klasista eta demokratiko bat sortu zuten, estatu-hiri gisa antolatua.

Demokraziaren sorrera

Polis bakoitzak, autonomia osoa zuen. Ekonomian, nekazaritzaz gain, merkataritzak garrantzia zuen beste polisekin harremanetan jartzeko orduan.

Politikan, demokrazia landu zen, plazaren inguruan, eta herritarren ordezkariak biltzarretan parte hartzen hasi ziren.

Beste herriekiko harremanak

Merkataritzarekin batera, beste herriekiko erlazioak sortu ziren. Herriko mitoak, ohitura zaharrak eta arauak kanpotarrekin alderatzen dira, mundu-ikuskera, azalpen eta interpretazio berriak sortzeko. Grezian tokiko erlijioak garrantzi handia zuen arren, ikuskera kosmopolita horrek zalantzarako bidea ireki zuen.

Pentsamendu abstraktua

Abstrakzioa eta pentsamendu abstraktua ahalbidetu zuten hainbat faktorek eragina izan zuten Grezian: idazkera alfabetikoa, diruaren sorrera, egutegiak, astronomia eta matematika. Hizkuntza zehatzagoa bihurtzeak garrantzi handia izan zuen, filosofiaren sorreran zuzenean eragin baitzuen. Filosofiaren sorreraren faktoreak dira.

Helburua mundua ulertzeko azalpen arrazionalak aurkitzea zen.

2. K.a. V. mendea eta demokrazia: sofistak eta Sokrates

2.1. Sofistak: eszeptizismo epistemologikoa, erlatibismo morala eta legeen konbentzionaltasuna. Giro antropologikoa

Demokrazia sistema politiko nagusia zen Atenasen. Demokraziak berdindu egin zituen nobleak zirenak eta ez zirenak; kargu politiko guztiak edozein hiritarren esku egon zitezkeen. Hirikideen eginbeharra foruetan eztabaidatzea, entzutea eta erabakiak hartzea zen.

Baldintza horietan sortu eta hartu zuten indarra sofistek. Ez ziren atenastarrak, kanpotarrak baizik, hiriko batzarretan hitz egiteko eskubiderik ez zuten. Sofisten iritziz, Natura gizakiaren borondatek kanpoko da, ez du ikerketa-gaia izan behar. Gai berriak: antropologikoak, hikuntzazkoak, zuzebidezkoak, politikoak eta moralak; gizakia ikertu behar da errealitatea ikertu ordez.

Zentzumenezko ezagutza ziurra ez denez, zientzia egiterik ez dago, ez dago denontzat balio duen eta bilatu behar den Egia bakarrik, ondorioz, ezin da ezagutu: **eszeptizismo epistemologikoa.**

Morala alorrean areago, ez dago on eta txarrik, arau oro hitzarmenaren emaitza da, eta horretaz desberdin eta aldakor toki nahiz sasoi desbedinetan: **erlatibismo morala.**

2.2. Sokrates

Sokrates K.a. 470, Atenas. Ez zuen parte hartu zuzenean politikan. Heriotza-zigorra ezarrita hil zen; erlijioaren kontra aritu eta gazteria bide okerrera bideratzeagatik.

Sokratesek ez zuen ezer idatzi, eta hari buruz dakigun guztia hurrengo filosofoengan izan zuen eraginagatik da.

Sokratesen ekarpenak: elkarrizketa bidezko argudiaketa induktiboa eta definizio unibertsala. Irakaspenak bizitzan aplikatu zituen, ondorioz, bizitzaren zein heriotzaren aurrean jardunbide eredugarria (koherentzia) utzi zuen ondorengo filosofoentzat.

Antierlatibismo morala: definizio unibertsalak

Sofisten kontrako ideia azaltzen zuen. Hitzari eman zioten garrantzia baina helburu desberdinengatik. Sokratesen ustez, gizakiaren egitekorik behinena, denontzat balio duten portaera arau unibertsalak argitzen ahalegintzea da.

Sokratesek definizio zehatzak emateak berebiziko garrantzia duela erakutsiko du. Sokratesen lehen moral arrazionala eta autonomia dela esan daiteke (gizakiaren baitatik eta ez beste inondik eratorria):

- **Intekeltualismo etikoa.** Inork ez du dakiela gaizki jokatzeko, portaera okerra ezjakintasunaren ondorioa da.

Maieutika: Sokratesen metodoa

Elkarrizketaren bitartez gogoetatzeari ekiteko metodo sokratikoak bi urrats zituen:

- **Ironia.** Sokratesek ezjakinarena egiten du, eta hizketakideek aldarrikatutako ideien azpian ezkututzen diren kontraesanak agerira ateratzera mugatzen da. Erantzun desegokiak baztertu nahi ditu, eta egokien bila abiatu. (Ezjakintasunaren aitortzatik abiatzea, zenbaitetan, ezjakinaren itxura eginez, gure uste "sendoak" auzitan jarritz).
- **Maieutika.** Gure barnean ditugun ezagutzak erditzen lagundu behar du filosofoak. Ezagutzean ez dugu ezer berririk asmatzen, barneko edukiak kanporatzen baizik. Amak (emagina zen) haurrarekin egiten zuena egiten du maieutikak ideiekin: kanporatzen lagundu.

3. Platon

3.1. Ideien teoria: dualismo ontologikoa

-Haitzuloaren mitoa (kontakizuna eta interpretazioa) -> fitxa

Atenasen demokraziaren garai onenak joanak ziren. Giro politiko horretan, eszeptizismoa eta erlatibismoa nagusi ziren sofisten irakaspenen ondorioz. Ondorioetako bat Sokratesen heriotza dugu.

Platonen ustez, balio absolutuak, Edertasuna, Ausardia... behar da, eta horretarako benetako errealitatea, zein den eta nolako den azaldu behar da. Horretan datza izatearen teoriaren garrantzia.

Ideien teoria honekin, arlo guztietako eszeptizismoa (zientifikoa, politikoa...) gainditu nahi zuen Platonek.

Itxuraz etengabe aldatzen ari den mundo sentigarria, aldaezina den beste (ulergarri edo adigarri) baten "kopia" besterik ez dela azaltzen du Platonek.

Mundu ulergarrian, mundu sentigarriko gauzen eredu "orijinalak" daude (perfektuak, betikoak...)

Badago izatearen alderdi egonkor bat, aldatzen ez dena. Zenbaiten definizioa ematen dugunean, partekatzen dituzten ezaugarriak aditzera ematen ditugu kontzeptu jakin batez baliaturik. Izen bera duen gauzaki multzo berari dagokion **ideia**.

Ondorioz, zuzena zer den erabakitzeko orduan, argudiatzeko teknikari erreparatu orde, benetako errealitateare (ideiari) eskaini behar zaio arreta. Horretan datza izatearen teoriaren garrantzia.

Moralaren kontzeptuez gogoeta egitean, ideiek existitu behar dutela ateratzen du ondorioztat Platonek.

Ideia multzoak daudela adieraziko du; garrantzitsuen ongia dugu: ideia guztien mailakatze horren punturik gorenean **ongiaren ideia** dago, mundu adigarria argitzen duena.

Ideien ezaugarriak

Ideiak betikoak eta bakarrak dira, izaki bakoitzeko ideia bana dagoelako. Hiru dira ideiei egozten dizkien ezaugarriak:

- **Arrazoiaren ezagugaiak.** Filosofiaren egitekoa da zentzumenez eginiko azterketari ihes egitea izakien benetako ezaugutzeko.
- Zentzumenen bidez jasotzen ditugun gauzakeri zerbait **irizteko erreferentzia-puntuak** ditugu ideiak.

- Ideiak objektu naturalaren zergatikoak dira. Mundu sentikorreko gauzatiek dagozkien ideitatiek hartzen dute bere izena; gauzatie horien **zergatikoak (izateko zergatia) dira.**

Laburbilduz, bi mundu daude: mundu fisikoa eta ideien mundua. Mundu fisiko honetatik at dauden materiagabeko izatie absolutu, aldaezin eta orokorrekin benetako errealitatea osatzen dute.

3.2. Bertuteak eta hiri ideala

Hiria antolatzeko, Platonek kontuan hartzen ditu arimaren hiru zatitiek. Platonen doktrina politikotiek arimari eta bertuteari buruzko ikusmoldeak ditu oinarri.

Jasotako esperientziak zeresan handia du ardura horretan, agintariei eta herri xehari, kontu politikotetan sumatu zizkien jokamolde itsusiek zeharo nahigabetu baitzuten. Harrezkero, jarraitzeko moduko eredu politikotik inon ez zegoela ikusita, eta gobernari-lana egingo zuten agintariekin prestakuntza aproposa eta berezia jaso behar zutela erakustera lotu zen (utopiagile).

Arimaren teoriarin oinarritutako gizarte klasista ezarri nahi zuen (nork berea, dagokiona, egiten duen tokian dago zorientasuna).

Horrelako gizarte bat tajutzeko tresnarik egokiena hezkuntza da.

Platonek, guztion zereginak koordinatuta lortzen du herritarren interesak bateratzea, zuzentasuna hiriarin nagusi izan dadin. Hauek dira gizarte sailak:

- a) **Produktugileak:** Eskulangintzat trebea denak oinarritako ondasunak ekoizteko ardura izango du. Bertute bereizgarria: **neurritasuna.**
- b) **Zantzaileak:** Gizartearen defentsa izango da dagokien eginbeharra, eta **sendotasuna,** euren bertutea.
- c) **Gobernari filosofoak.** Beraien bertutea eta abilezia **zuhurtasuna** da. Gizarte-klase bakoitzak berea betetzen badu, ordena eta harmonia nagusituko dira hiriarin, eta zuzentasuna ezarriko da.

Justizia bideragarria izateko baldintzak ere aipatzen ditu Platonek:

- **Aberastasuna eta txirotasuna desagertzea.** Goi-mailako bi gizarte sailek, soldaduek eta gobernarietiek, ez dute ondasunik behar, ezta inolako ordainik ere, bizitzako behar dituzten bitartekoak salbu. Eskulangileari, berriz, ez zaio jabetza ukatu behar.
- **Zuzentasuna.** Goi-mailako bi gizarte taldeek familia gisako bizimoduei uko egitea da. Emakumeek eta gizonekin politikan parte hartzeko aukera dutenez gero, familiak traba besterik ez lieke egingo estatuaren

gobernu-kontuetan sartzean. Ezkontzak eta seme-alaben heziera estatuaren menpe.

4. Aristotelesen sistema teknologikoa: metafisika, ezagutza, etika eta politika

4.1. Etika eta politika

Aristotelesentzat banaezinak dira.

Gizakia animalia politikoa da. Gizakiaren izateko modua soziala da, eta polisean bakarrik aurki dezake zoriona. Ez dago moral indibidualik polisetik banandua. Hiritik kanpo, animaliak edo Jainkoak soilik bizi daitezke.

Xedezko kausaren lehentasuna

Gizaki orok zoriona bilatzen du (zoriona ez dago gauza materialetan, baina heiek beharrezkoak dira). Zoriona gure izangaiak ahalik eta gehien aktualizatzean datza.

Zorion osoa izateko, bertute etiko eta intelektualez gain, kanpoko ondasunak behar dira.

Bertutea erdibidean

Bi mutur kaltegarrien arteko erdibide egokia (gehiegikeria eta gutxiegekeriarena) gune orekatsua.

Politikan, erdigune egokiaren teoria klase ertainaren proposamenean gauzatzen da, ez pobreegia ez aberatsegia, klase sozialik zoriontsuena eta iraunkorra bihurtzeko.

Politikan Aristoteles ez da Platon bezain itxua, sistema bat baino gehiago izan daiteke egokia berarentzat, baldin eta jendea nolakoa den.

Ohitura

Gizakia ez da automatikoki ona bihurtzen jakintsua izateagatik, izan ere, behin eta berriz aktualizatu behar du bere bertutea; ongian trebatu beharra dago.

Ekintza onak burututa, orduan eta errazagoa izango zaigu onak bilakatzea. Horrela, bertutea ohitura onenen ondorioa da, gaiztoa ekintza gaiztoak egitean.

Justizia

Justizia, legeari obeditzea da, horrek ohiturak sortzen baititu eta ohitura baita bertuterako biderik errazena. Bestalde, justizia ondasunen banaketa zuzena da.

Justizia gauzatzen da norberak merezi duena jasotzen duenean.

ERDI AROA EUROAPAN

1. Kristautasuna Erromatar Inperioan

1.1. Kristau-ikuskera berriak

Ontologia

Kristautasunaren ustez, Jainkoak gauza guztiak ezerezetik sortu zituen, eta gizakia da errealitate horren gailurra. Greziar filosofian ez dago kreaziorik.

Antropologia

Gizakiak leku berezia du kreazio horretan, gainerako egindakoen gainetik.

Kristautasunean gizaki guztiak berdinak dira (eta gaizkirako joera dute).

Ezagutza (epistemologia)

Kristautasunak Egia zalantzagabekoa, jainkotasunean oinarritua aurkeztuko du.

Errealitatea Jainkoaren bidez uler daiteke.

Eskatologia (salbazioa)

Giza bizitzak nahiz historiak norantza jakina dute. Badute hasiera bat eta helmuga bat (Gizakiaren kasuan salbazio beharra).

Denborari buruzko ikuspegi lineala (kreazionismoa); greziarrek zuten ikuspegi ziklikoaren aurka dago.

2. Agustin Hiponakoa

2.1. Ezagutzaren teoria. Fedea eta arrazoia: ezagutzeko sinetsi

Fedea eta arrazoia adosgarriak direla (ez kontrajarriak) erakustea da Eliz Gurasoen beste erronka handi bat.

Egiaren bilaketak banakoaren jarrera aktiboa (aldekoa) eskatzen du. Ez dakar ezagutza bakarrik, fedea eta maitasuna ere bai.

Gizakia errebelazioaren bidez iristen da Jainkoagana, eta, ondoren, errebelazio hori ulertzen eta arrazionalizatzen saiatzen da. Kristauak saiatu egin behar du sinesten duena ulertzen (sinestearen lehentasuna).

Fede ezaren eta, ondorioz, kondenazioaren ardua banakoari dagokio.

Ezagutza mota edo maila ezberdinak bereizten dira:

- **Sentikorra:** nola halakoa, zentzuetan ziurtasunik ez dago eta.
- **Arrazoizkoa:** bi azpi atal bereiz daitezke: zientzia eta benetako jakinduria.

Bi horien gainetik legoke kontenplazioa (Jainkoaren nahia barneratu dutenean).

Agustinen helburua ez da fedearen eta arrazoiaren artean mugak jartzea, biek kristau-egia argitzea dute helburu. Egi bakarra denez, gizakiari hori argitzea eta lortzea interesatzen zaio, hori erdiesteko, arrazoia eta fedea elkarlanean aritzen dira.

2.2. Antropologia

Gizakia, arimaz eta gorputzaz osatua

Gizakia izaki konposatua da, arima hilezkor eta gorputz hilezkorrez osaturiko izakia, hau da, kreazioaren gailurra da. Ariman dago lehentasuna, Platonen eragina nabaria da gai honetan.

Platonen ustez, arima ezin daiteke hil, San Agustinen ustez, arima bizitzaren parte da, eta bere esentzia bizitza den printzipioetatik hartzen du; hilezkorra da.

Agustinen pentsamendua bi etapatatik igarotzen da: lehen etapan, tradukzionismoa onartzen du, gurasoek sortzen dute seme-alaben arima. Bigarren etapan, kreazionismoa onartzen du, Jainkoak banan-banan eta zuzenean gorputz bakoitzean jartzeko sortzen ditu arimak. Arimak gorputza

piztu, zaindu eta gobernatu egiten du. Arimari esker bihurtzen da materia bizidun eta eratu. Arima=hilezkorra. Gorputza=hilkorra.

“Goputza arima menderatzen (eta okerrerako bidetik eramaten) ahalegintzen da.”

Gizakia Jainkoak egindako izakirik behinena da San Agustinen ustez. Hala ere (hasieratik) du okerrerako joera, gainditu beharrekoa. Gizakaria bekataria da, bekatua askatasuna gaizki erabiltzearen ondorioa da.

a) Gaitzaren arazoa

“Jainko ahalguztiduna bada, nolatan gerta liteke gaitza munduan?”

Gaitzaren arazoaz kezkatu ibili zen. Etangabe ikus daitekeen zerbait da, naturaren gaitz fisikoak (lurrikarak...) eta gaitz moralak (gerrateak...).

Agustinek gaitz fisikoa izaki sortuen ustelgarritasun ikuspegitik ikusten du. Ustelgarritasuna ez da gaitz bat bere baitan; gauza ustelkorrak onak dira. Beraz, existitzen diren gauza guztiak onak dira, baina ez guztiz onak.

Gizakiaren helburua zorientzua izatea da. Jainkoa maite eta haren nahia eta borondatea betetzen dituenean, zuzen jokatzeko du; nahia ez duenean betetzen, oker jokatu eta gaitz morala sortzen du.

b) (Giza) Askatasunaren arazoa

“Jainkoa orojakilea bada (gertatuko den oro aurrez badaki), nolata izan liteke libre gizakia? Eta libre izan ezean, zergatik izango da bere eginen erantzule?”

Elizakoen erantzuna: munduan diren gauza txar denak gizakion erruz gertatzen dira. Hiltz gutxitan esanda: gizakiok ondo jokatzeko dugunean Jainkoaren laguntzari esker egiten dugu, gaizkia egiteko berriz bakar-bakarrik moldatzen gara (errudun oso).

Zoiontsu izateko modu bakarra Jainkoaren jabe izatea da, haren nahia ulertu eta betetzea da. Haren nahia ezagutzeko bideak errebelazioa (testuak, bitartekarien esanak...) eta barne-kontzientzia dira.

2.3. Historiaren filosofia: lurreko hiria eta Jainkoaren hiria

Historiaren Filosofia Agustinekin hasi zen. Historia linealaren kontzeptua sortu zuen, historia beste modu batean ulertzeko.

Historia unibertsalaren zentzua sistematikoki aztertzen arduratu zen lehen pentsalaria ere izan zen, ekintzak ulertzen eta haiei zentzua aurkitzen saiatu zen. Gizadiaren kronika bi hiriren arteko borroka gisa agertzen da:

- Lurreko hiria: bere burua Jainkoa baino maiteago dutenena.
- Jainkoaren hiria: dohatsuena, Jainkoa euren burua baino maiteago dutenena.

Ez da zuzena lurreko hiria Estatuaren berdintzat jotzea, ezta hiri zerutarra Elizaren berdintzat hartzea ere. Zorionako hiria Estatua da, Jainkoaren nahia ulertu eta haren arabera jokatzeko duten agintariak dituen hain zuen. Estatua eta Eliza bizitzan jokatzeko bi era gisa artu ohi dira, bizitzeko bi modu, haragiaren eta espirituaren arabera.